

Gizarte-zinemako emakume zuzendarientzako «Proiektu-amaierako» lehiaketan parte hartzeko oinarriak

**Izena emateko epea: 2019ko maiatzaren 15eko 00:01etik 2019ko ekainaren 30eko 23:59ra
(Espainiako orduak)**

AZALPENAK

Emakumeek Gizarte Eraldatzeko Komunikazioaren (GEKaren) alorrean¹ egiten duten lana azaleratzea eta indartzea da «Proiektu-amaiera» lehiaketaren helburua. Ekimen horri esker, gizarte-erakundeak egiteko eta ezagutzera emateko azken urratsak burutu ahal izango ditu emakume zinema-zuzendariak. Horrela, gizarte-gaiei buruz emakumearen ikuspegitik hausnartzen duen lana eskainiko zaio euskal gizarteari.

Komunikazio Alternatiboko Sarearen (CARaren) esparruan jorratuko da jarduerak. Gizarte-konpromisoa duen ikus-entzunezko komunikazioari lotutako pertsonen osatutako sarea da, eta helburuetako bat da «elkarren artean harremanetan jartzea, gizarte-zinemako emakume zuzendariak batetik eta dagoeneko KCD GGKEarekin harremana duten zinema-jaialdia edota etorkizunean harremana izan lezakeenak bestetik, ahalik eta leku gehienetan erakusteko gizarte-gaia lantzen dituzten lanak». Eta horrekin batera, «CAR Sarearen helburuak, eginkizunak eta jarduerak ahalik eta gehien zabaltzea, sareari atxikitako pertsonen eta elkartearen kopurua handitzeko eta gizarte-gaia lantzen dituzten ikus-entzunezko lanak ezagutzera emateko»¹.

Era berean, emakumeek CAR Sarean partaidetza handiagoa izatea ere bilatzen du, eta sarea GEKaren alorreko eragile gisa indartzea.

Ekoizpenaren azken fasean dauden gizarte-zinemako emakume zuzendariak zuzendutako lehiaketa da, lana ahalik eta hoberen burutzeko laguntza ekonomiko txiki bat jaso dezaten.

Zenbait bide erabiliko dira deialdia plazaratzeko, eta, harekin batera, emakume eta gizonek ikus-entzunezkoen sektorean bizi duten errealitate desberdinari buruzko informazioa ere emango da, herritarrek gai horren inguruan sentsibilizarazteko asmoz.

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek oso-osorik onartzea. Aparteko kasuan, eta behar bezala justifikatuta, KCD GGKEak oinarriok edozein unetan aldatzeko eskubidea gordetzen du, bai eta baldintza orokorrak edo partikularrak, erabiltzeko araudia, jarraibideak eta aplikatu beharreko oharra ere. Oinarriak interpretatzean zalantzak edo desadostasunak sortuz gero, KCD GGKEaren irizpidea nagusituko da.

Lehiaketan parte hartuz, partaideek onartu egiten dute KCD GGKEak beraien izen-abizenak erabiltzea, argitaratzea eta erreproduzitzea publizitatean, sustapenetan eta argitalpenetan, TBar, Interneten, sare sozialetan eta beste edozein hedabidetan, mundu osoan eta denbora-mugarik gabe, Espainiako legeriak ezarritako mugen baitan, merkataritza-, informazio- edo korporazio-asmoetarako, eta betiere sustapen-ekintza honi lotuta. Halakorik eginez gero, partaideak ez du inolako kontraprestaziorik jasotzeko eskubiderik izango.

NORK HAR DEZAKE PARTE?

Munduko edozein lekutako emakume zuzendariak edo zuzendarikideak har dezake parte, adinez nagusia bada. Lana pertsona batena baino gehiagorena bada, zuzendarikide guztiek

¹ CAR Sareari buruzko informazio gehiago: <https://www.kcd-ongd.org/car>

Kultura, Communication y Desarrollo KCD ONGD

Tel.: +3494 602 46 68 info@kcd-ongd.org

IFK: G9555094 - www.kcd-ongd.org



Kultura Communication Desarrollo

ONGD

ONURA PUBLIKOKO ELKARTEA - ENTIDAD DE UTILIDAD PÚBLICA

baimendu beharko dute lana lehiaketan aurkeztea. Partaideen ardura da lehiaketan izena ematean benetako informazioa ematea. KCD GGKEak ez du inolako erantzukizunik onartuko lanen zuzendaritzaren edo egiletzaren inguruan erreklamaziorik aurkeztuz gero. Lanaren zuzendarikide gisa identifikatutakoen artean emakume bat baino gehiago badago, lehen saria horien guztien artean banatuko da.

Partaideek lehiaketarako aurkezten duten lanak gizarte-edukia izan behar du, Gizarte Eraldatzeko Komunikazioaren inguruan KCD GGKEak kaleratu dituen irizpideen arabera.

Bereziki baloratuko dira esparru globalean hegoaldeko herrialdeetako emakumeek egindako lanak, edo toki-esparruan baztertutako taldeetako emakumeek egindakoak.

Lana fikziozkoa izan daiteke, dokumentala nahiz animazioa. Film laburra izan daiteke, ertaina edo luzea. Lanaren bertsioa edozein hizkuntzatan egon daiteke. Beste hizkuntza batean badago, euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez azpigitulaturik aurkeztu behar da lehiaketan.

Lanak amaitzeko fasean egon daitezke, edota estreinatu gabe. Nolanahi ere, 2020ko otsailaren 28a baino lehen lan sarituak bukatuta egon behar du, eta bertsio finala KCD GGKEaren esku. 2019ko irailean lehiaketaren emaitza argitaratzen den unean estreinatu gabe egon behar du.

- **Lanak bidaltzeko erak:**

www.kcd-ongd.org helbidean dagoen «2019ko proiektu-amaierako lehiaketarako» inprimakiaren bidez soilik bidali ahal izango dira lanak, 2019ko maiatzaren 15etik ekainaren 30era, bi egunak barne.

Lehiaketara aurkezten diren lehenengo 15 lanak baloratuko ditu hautaketa-batzordeak. Lanak izena emana duela joko da inprimaki ofiziala jasotzen denean, eskatutako informazio guztia jasota duela.

Baztertu egingo dira 2019ko ekainaren 30a baino lehen eskatutako dokumentazio guztia bidaltzen ez duten lan guztiak.

SARIAK

Irabazle izendatzen den lanak emakume batek egindako Proiektu Onenaren Saria jasoko du. Saria lanaren zuzendariari/ei emango zaio/e, izena emateko fitxetan emandako datuei jarraikiz. 2.000€-ko (bi mila euroko) saria emango zaio eskudirutan, betiere Espainiako legeriak zehaztutako zergen eta erregulazioen menpe.

EPAIMAHAIA ETA LEHIAKETAREN EBAZPENA

Genero-ekitaterako ekintza positiboak egiteko asmoz, epaimahaiko kideen %50, gutxienez, emakumeak izango dira. Garapenerako lankidetzaren eta elkartasunaren munduko kideek osatuko dute epaimahaia edota, bestela, ikus-entzunezkoen eta komunikazioaren alorrekoek, edota artearen eta kulturaren beste diziplina batzuetakoek. KCD GGKEak erabakiko du epaimahaiaren osaera.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Berdinketa badago, Bilboko Karabanako koordinatzaileak erabakiko du zein den irabazlea. Epaimahaiak erabakia kaleratu ondoren, lana ezin izango da lehiaketatik erretiratu.

Parte-hartzaile guztiei jakinaraziko zaie beren proiektuak sarituak izan diren ala ez eta 2019ko irailean plazaratuko da lan sarituaren izena.

Irabaziz gero, 2020ko otsailaren 28a baino lehen lan sarituaren azken bertsioa eta zuzendarien argazkiak KCD GGKEari bidaltzeko konpromisoa hartzen dute partaideek. Azken bertsioa beste hizkuntza batean badago, euskaraz edota gaztelaniaz azpigitulaturik egon beharko du.

Kultura, Communication y Desarrollo KCD ONGD

Tel.: +3494 602 46 68 info@kcd-ongd.org

IFK: G9555094 - www.kcd-ongd.org

2. or.

Amaitutako lanak zabaltzen direnean, KCD GGKEaren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEAren) logotipo ofizialak erakutsi beharko dituzte, lehenarena lehiaketaren antolatzaile gisa eta bigarrenarena finantzatzaile gisa.

Bidalketa-kosturik egonez gero, partaideek ordaindu beharko dituzte. Lanaren azken bertsioa 2020ko «Emakumeek egindako zinemaren karabanen» proiektatzeko eskuragarri egon beharko du, baina ez du ordainsaririk jasoko horregatik.

KCDk beretzat gordetzen du Bilboko 2020ko «Emakumeek egindako zinemaren karabanen» lana ez proiektatzeko eskubidea, edozein arrazoi dela eta desegokitzat jotzen badu.

Lehiaketaren, lan sarituaren eta karabanaren berri emateko erabiliko dira zuzendari irabazle(ar)en argazkiak. Lan saritua noiz eta non proiektatutako den jakinaraziko zaie zuzendariari eta jendarte zabalari, Bilboko 2020ko Karabanaren programazioa zehaztu eta gero.

Hautatutako lanen ordezkariak Bilboko Karabanaren egotea sustatuko eta bultzatuko du KCDk, eta bere gain hartuko ditu hori errazteko gastu batzuk, hala nola ordezkariaren garraioa, ostakua eta mantenua, erakundearen gaitasunaren arabera.

IKUS-ENTZUNEZKO MATERIALAREN ERABILERA

KCD GGKEak ez du erakutsiko lehiaketara aurkeztutako lanik edo lanen zatirik, aurretiaz egilearen baimena jaso gabe, oinarri hauetan adierazitako kasuetan izan ezik.

Lan sarituari lotutako materiala Bilboko Karabanaren ikus-entzunezko eta inprimatutako materialetan (katalogoan, sustapenerako spotean, Interneteko gunean, erakusketetan) erabiltzeko baimena ematen diote zuzendariak KCD GGKEari, sustapen- eta zabalkunde-asmoetarako.

Gainera, lehiaketan onartutako lanak aurkeztu dituzten zuzendariak berariaz ematen diote baimena KCD GGKEari, honako hauek egin ahal izan ditzan:

- Lanak Bilboko 2020ko Karabanaren parte hartzen duen bitartean jendaurrean erreproduzitzea, ikustea eta proiektatzea.
- Karabanaren ikusteko eta erakusteko behar den formatuetara egokitzea lana.
- Lanaren irudiak edo zatiak erabiltzea prentsa-dosierretan nahiz informazio- eta sustapen-karteletan sartzeko, edota Karabanaren webgunean bestela, Karabanaren beraren sustapen-lana egiteko.

Baimen hori ezinbesteko baldintza da lanak lehiaketan parte hartzeko, eta ez dakar inolako kontraprestazio ekonomikorik izena eman duen edo lanaren gaineko eskubidea duen pertsonarentzat.

DATUEN BABESA

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, honen bidez jakinarazten da lehiaketarako izena ematean biltzen diren datu pertsonalak KULTURA, COMMUNICATION Y DESARROLLO KCD GGKEa titulartasunpeko fitxategi batean sartuko direla.

Lehiaketako partaide gisa duzun harremanaren ondorioz jarduera administratiboak gestionatzea eta lehiaketarako prozesuen eta tramiteen inguruko informazioa bidaltzea da fitxategiaren helburua. Izen-ematea tramitzatzeko beharrezko datuak baizik ez dizkizugu eskatuko, eta horretarako soilik erabiliko ditugu. Eman dizkiguzun datuak ez dizkiegu hirugarrenei lagako eta ez ditugu beste edozertarako erabiliko, aurretiaz zure baimena propio jaso barik.



Kultura Communication Desarrollo

ONGD

ONURA PUBLIKOKO ELKARTEA - ENTIDAD DE UTILIDAD PÚBLICA

Nahi baduzu, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko eta ezeztatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzu, indarreko legeriak agindutakoarekin bat. Horretarako, info@kcd-ongd.org helbidera idatzi behar duzu, 94 602 46 68 telefonora deitu, edota eskutitz bat idatzi KULTURA, COMMUNICATION Y DESARROLLO KCD erakundeari (Beurko Zaharra, 3 – 3. pabiloia, 12. bulegoa, 48902 Barakaldo).

Kultura Communication Desarrollo KCD ONGD

Tel.: +34 946024668 - cineinvisible@kcd-ongd.org

www.kcd-ongd.org

ⁱ Gizartea Eraldatzeko Komunikazioa

Gizartea Eraldatzeko Komunikaziotzat (GEKtzat) zer ulertzen duen azaltzeko premisak zehaztu ditu KCD GGKEak.

Komunikazioak portaera eta jarrera indibidual eta kolektiboetan eragiten du; berdin dio ahozko komunikazioa izan, idatzizkoa, ikus-entzunezkoa, ikusizkoa, edo arte-diziplinetan edo besteren batean oinarrituta egon. Mezua jasotzen denean eta igortzen denean ere gertatzen da eragina. Komunikazio-bide batzuek, bereziki artistikoei eta ikus-entzunezkoek, arrazoian, emozioetan eta inkontzientean eragiten dute, erraz barneratzen direlako eta formatua dela eta, erakargarriak direlako. Portaerak, jarrerak eta ikuspuntuak eraldatzeko aukera hori dela eta, botere-tresna indartsua da komunikazioa.

KCD GGKEaren ustez, Gizartea Eraldatzeko Komunikaziotzat jo daitezke, lanaren garapenean edo emaitzen bitartez, Garapen Jasangarria bultzatzen duten komunikazio-prozesu edo -produktuak. Horrelakoek, beraz, kontuan hartu behar dute genero-ikuspegia, kulturartekotasuna, giza eskubideak edo jasangarritasun ekologikoa, ekonomikoa eta soziala. Hartara, KCD GGKEak Gizartea Eraldatzeko Komunikaziotzat jotzen ditu gutxienez elementu hauetako bat duten komunikazio-prozesu edo -produktuak:

- Giza errealtatea errepresentatzen dute, generoari, adinari, talde sozial eta ekonomikoei, kulturari, erlijioari eta abarri dagokionez.
- Pertsonak errepresentatzen dituzte, baina inor gutxietsi edo estereotipatu gabe, eta rol tradizional patriarkalak, heteronormatiboak, etnozentrikoak edo klasekoak esleitu gabe.
- Protagonistak emakumeak dira, genero anitzeko taldeak, kolektibo baztertuak, gutxiengo etnikoak, erlijiosoak, kulturalak edo sozialak.
- Emakume ahaldunduak bistaratzen dituzte, edota elkarrekin helburu erkide baten alde aritzen direnak, edota beraien salaketak, kezkak, ikuspuntuak edo proposamenak biltzen dituzte.
- Aniztasunarekiko errespetuz jokatu eta talde indigenak bistaratzen dituzte, edo gutxiengo etnikoak edo erlijiosoak, edota beraien salaketak, kezkak, ikuspuntuak edo proposamenak biltzen dituzte.
- Auziak ebazteko edo bidegabeko egoerak eraldatzeko proposamenak bistaratu edo jasotzen dituzte:
 - * genero- eta kultura-identitateen aniztasuna errespetatuz.
 - * oinarri hartuz giza eskubideen sustapena, lankidetzat, indarkeriarik eza, elkarriketa eta bake positibo baten eraikuntza.
 - * jasangarritasun ekologikoa, ekonomikoa eta soziala kontuan hartuz.
- Jasangarritasun ekologikoa, ekonomikoa eta soziala bistaratu edo sustatzen dute.

Proposamen horiek komunikazio-prozesu osoan edo haren edozein elementutan ager daitezke: igortzean, mezuan bertan edo hartzean. Zarata bera eraldatzailea dela esan daiteke, komunikazio ez-eraldatzailean interferitzen badu.

Halakoek aldaketak edo proposamenak dakarzkion kapitalismo patriarkal heteronormatibo hegemonikoaren eta hedabide masibo edo tradizionaletan pisu eta hedapen handia duen errealtateari. GEK-ko produktuak beharrezkoak dira, halaber, garapen jasangarria eraikitzea bideratutako proposamenei eusteko edo halakoak sendotzeko.

Illo horretan, emakumeek egindako produktu komunikatiboak bere horretan eraldatzaileak dira, tradizioz gizonezkoena den eremua eraldatzen dutelako edota sistema hegemonikoaren menpe dauden ikus-entzunezko komunikazioaren eremuetan (ekoizpenean, banaketan nahiz sarietan) ordezkartza eskasa dutenen ikuspegia eskaintzen dutelako. Horrek ez du esan nahi, ordea, gizonek banaka egindako lanak ezin duenik GEKaren ezaugarriak eduki.

Orobat, eraldatzaileak dira prozesu komunitarioen edo lankidetzat-prozesuen ondorioz sortutako lanak. Halakoetan, emaitzari gehitu behar zaio eskuarki komunikatibo masibo edo tradizionaletan pisu txikia duten kolektibo edo taldeek egindako hausnarketa-prozesua, antolakuntza, eztabaida eta elkarlanaren bidezko sorkuntza.

Ildo beretik, komunikazio-produktuak ez ezik, prozesua bera ere izan daiteke eraldatzailea. Irizpide horiek berak aplikatu dakizkieke produktu horiek zabaltzeko guneei, banatzekoei, erabiltzekoei, eztabaidatzekoei edo saritzekoei eta, jakina, halakoak zehaztea dakartzaten prozesuei ere.

Gizartea Eraldatzeko Komunikazioaren eragileak

Definizio horretan oinarrituta, GEKaren eragiletzat har daitezke beren ekintza-eremuetan, taldeka nahiz banaka, GEKari lotutako espazioak, lanak, tresnak edo proposamenak egiten dituzten pertsonak, taldeak edo eragileak.

Proiektu honen bitartez, KCD GGKEak komunikazioaren bidez eragin nahi du euskal biztanleria kritikoa eta aktiboa eraikitzeko jardunean, ezinbestekoa baita genero-ekitatea, kulturartekotasuna eta giza eskubideak kontuan hartuko dituen aldaketa lortzeko. Eta ildo beretik, garapen jasangarria sustatzeko ildotik eragin nahi du gizarte osoan.